


Abarak

ESTITXU EIZAGIRRE

Emakumeokplazara.org

Tresna potentea aurkeztu zen ekainaren 10ean Donostiako Dokan. Emakumeen jarduera kulturala artikulatzeko webgunea. Kultur ekitaldietako hiru agenteak harremanetan jarri ditzaikena: horrelako saraotan biltzen garen publiko gero eta handiagoak badugu gustuko ekitaldiak klik bakkarean eskuratzeko agenda. Antolatzaileek badute sortzaileak ezagutu eta harremanetan jartzeko zerrenda. Eta sortzaileek euren lana erakusteko eta beste artistekin harremanetan jartzeko ataria. Erreminta indartsu hau erabilerak zorrotzko du: sortzaile eta antolatzaileek weba elikatuta koipeztatu-ko da engranajea. Baina baldintzak aldekoak dira, lan horretara lotu daitezke: antolatzaileak dira ekitaldiaren berri igortzeko interes handiena dutenak, euren publiko zuzena biltzen baita sare horretan. Eta sortzaileek ez dute honen moduko beste eskaparaterik, antolatzaile eta publikoaren begitan agertzeko.



Garaiarekin pare-parean dator webgunea. Oraintxe da garaia publikoak emakumerik gabeko ekitaldi kulturalik, jairik ulertzen ez duena. Oraintxe da garaia kultur eremuetan emakume talde kozkor (kopuruz) eta trinkoa (kontzientziaz) dagoena. Oraintxe da garaia egitekoa.

Aurkezpen egunean Leintz bailarako Hainbat musika taldeak hunkitu gintuen, besteak beste. Plaza hartzeko pausoa nola eman zuten (kultur jarduera guztietan errepikatzen dena) kontatu zuten. Bakoitzak bere eremuan, kontzientzia hartu dugu kultura zergatik egin duten batzuek baino ez, eta zergatik egin duten era batekoa. Eta kontzientzia hartu dugu emakumeak plazara igo direnean, testuinguru horrek guztiak baldintzatutako sormena egin dutela: “Horrela hezi gaituztelako egin dugu (bertsotan, musikan, artean...) horrela gaur arte”. Orain bakoitzak nola egin nahi duen/dugun pentsatu eta egiteko garaia da.

Tolosan, Bertso Saioa

Bertsolariak: Aitor Mendiluze,
Bixente Gorostidi, Amaia Agirre,
Mikel Artola, Anjel Mari Peñagarikano,
Jokin Sorozabal.

Gai-jartzailea: Iker Iriarte

Ekainak 23, asteazkena / 19:30
Zerkausia, Tolosa ***Sarrera doan**

TOLOSAKO  UDALA